


LIBURUA

# Literaturzalearen solasari adi



## TXIKIAREN HANDITASUNA LITERATURAN MARIASUN LANDA

EREIN, 2018

**AMAIA ALVAREZ URIA**

**B**akarrik sentitzeko modu asko dau-  
de, haietako bat da gogoko gai bati  
buruz hitz egiteko solaskiderik ez  
izatea inguruan. Horretan lagundu dit li-  
buru honek. Mariasun Landak literaturari  
buruz hitz egiten du denboran zehar ar-  
gitaratu dituen testuen bilduma honetan.

Euskal literaturaren enbaxadore ho-  
nek literaturari buruz pentsatzen eta  
sentitzen duena topatuko dugu bertan,  
idazle gisa izan duen eskarmentua eta  
literatura irakasle moduan eskolak pre-  
statzean eta klaseratzean jaso dituen frui-  
tuak. Askok irakurri eta idatzitako euskal  
emakume idazle honen obra oparoko  
unibertsoa, erreferenteak, estiloa aletuz  
joango da orriz orri.

Liburutegirako gonbidapenarekin has-  
ten da liburua. Irakurketari buruz hitz  
egingo digu jarraian, baita idazketara ani-

matuko ere: literaturaren bi alderdiak. Ira-  
kurler gisa aitortuko dizkigu bere liburu go-  
gokenak. Kontatuko digu batzuetan bere  
“ahots jakintsuei” egiten diela kontsulta.  
Idazteko leihoa eta gela behar ditugula  
esango digu, baina bereziki askatasuna  
nor bere egiaz aritu ahal izateko.

Animaliak eta ipuin klasikoetako  
pertsonaiak bidelagun hainbeste maite  
duen haur eta gazte literaturaz jardun-  
go du, oharrak hartzeko gogoia piztuz  
irakurlearengan. Estereotipoak eta au-  
rreiritziak salatuko ditu eta umorea eta  
soiltasunaren alde agertuko da. Omenal-  
dia egingo dio Asun Balzola ilustratzaile  
eta lagunari eta euskararekin izan duen  
harremanaz arituko da.

Gaur egun literatura nola ikusten  
duen jakingo dugu eta berak egindako  
ibilbidearen berri izango dugu, bere li-

buru mugarriak, jasotako sariak edota  
emandako hitzaldien arrastoekin. Lite-  
ratur irakasle lanetan ikasleei oinarri  
teorikoak eta baliabideak eman behar  
zaizkiela esango digu, literatura testuez  
goza dezaten eta testuak sor ditzaten.

Literaturak hunkitzeko eta harritze-  
ko duen gaitasuna maite du, jolasare-  
kin duen lotura eta ikusten ez ditugun  
gauzak ikusgarri egiteko ahalmena. Hala  
ere, literaturak ez du bere garairik one-  
na bizi. Hona gogoetarako egindako ai-  
puetako bat: “Gizakiaren ezbehar guz-  
tiak datoz gela batean lasai esertzeko  
eta bakarrik egoteko gaitasun faltagatik”  
(Blaise Pascal). Literaturaren aldeko ma-  
nifestu edo maitasun gutun hau irakurri  
ostean literatura irakurtzen jarraitzeko  
eta idazten hasteko gogoia areagotu ala  
piztuko ahal zaigu? ●